



**EIBARKO UDALEAN EUSKAREN ERABILERA  
NORMALIZATZEKO PLANA**

**V. PLANGINTZALDIA (2013-2017)**

## AURKIBIDEA

- **0.- SARRERA** (3. orr.)
- **1.- AURREKARIAK** (5. orr.)
- **2.- INGURUNE JURIDIKOA** (7. orr)
- **3.- PLANGINTZALDIAREN ARDATZAK** (9.orr)
  - **3.1. Eragin eremua**
  - **3.2. Eragin epea**
  - **3.3. Helburu estrategikoak**
  - **3.4. Administrazio publikoen betekizunak**
    - **3.4.1. Atalen definizioa**
    - **3.4.2. Eibarko Udaleko atalen sailkapena**
  - **3.5. Metodologia**
    - **3.5.1. Antolakuntza egiturak**
      - **3.5.1.1. ENBA**
      - **3.5.1.2. Euskararen lan-mahaia**
    - **3.5.2. Planaren jarraipena eta ebaluaketa**
- **4.- BALIABIDEAK** (14.orr)
  - **4.1. Giza baliabideak**
  - **4.2. normalizazio ekintzak**
    - **4.2.1. Hizkuntza prestakuntzarako normalizazio ekintzak**
    - **4.2.2. Erabilerara zuzendutako normalizazio ekintzak**
      - **4.2.2.1. Euskara zerbitzu hizkuntza**
      - **4.2.2.2. Euskara lan hizkuntza**
    - **4.2.3. Euskara plana erakundetzera zuzendutako normalizazio ekintzak**
    - **4.2.4. Lidergo eraldatzailea sustatzera zuzendutako normalizazio ekintzak**
- **5.- GAUR EGUNEKO HIZKUNTZA EGOERA** (17.orr)
  - **5.1. Ordezkarri politikoaren ezagutza maila**
  - **5.2. Udal langileen ezagutza maila**
  - **5.3. Ondorioak**

## **0.- SARRERA**

Euskararen normalizazioa eta Eibarren euskaraz bizitzeko aukera izatea Eibarko Udalak bere buruari aspaldi jarri zizkion erronkak dira. Kontuan izanik Udala dela herri honetako administrazio erakunde nagusia, Eibarko Udalak bere gain du barne normalizazioa sustatzeko ardura eta herritarrei administrazioarekin dituzten harremanetan euren hizkuntza eskubideak bermatzeko ardura ere.

Aurreko plangintzaldietan urrats garrantzitsuak eman dira; oinarri batzuk jarri dira, bide bati ekin zaio, plangintzaldiz plangintzaldi, hedatzen eta sendotzen joan diren oinarriak.

Lehenengo plangintzaldien helburua udal langileak euskalduntzea izan zen, hizkuntza eskakizunen sistemaren eskutik. Ondorengo, euskara zerbitzu hizkuntza izan zedin udal langileak trebatzea. Ondorengo, herritarrei eskainitako zerbitzuan hizkuntza eskubideak bermatzea, eta azkenekoan, zerbitzu hizkuntza elebiduna bermatzeaz gain, euskara lan hizkuntza izan dadin pausoak ematea.

Oraingo honetan aurreko xedeetako bat bera ere baztertu gabe, xede berriak ere baditu plan honek: Euskara plana erakundetzea, hau da, udal atal bakoitzak bai maila politikoan, bai maila teknikoan bere egitea planean jasotakoa; eta lidergo eraldatzailea sustatzea, bakoitzak bere eragin eremuan hizkuntzaren erabilera egokia egin dezan, beti ere planean jasotakoari jarraituta.

Udal honetan egin den ahaleginari esker eta langileek egiaztatu duten euskara gaitasunaren ikuspegitik, gaur egun posible da Eibarko udalean euskararen erabilera areagotzen jarraitzea eta euskara zerbitzu hizkuntza ez ezik ohiko lan hizkuntza ere izatea gero eta arlo eta funtzio gehiagotan.

lido horretatik, V plangintzaldi hau baliatu beharko litzateke Eibarko udaleko langileen euskara gaitasuna hobetzeko egin den ahaleginari neurriko etekina ateratzeko, helburu egingarriak, arrazoizkoak eta proportziozkoak planteatuta.

Orain arte egindako bidea sendotu nahi da, eta udal langileen euskara gaitasuna sendotzeko eta aregatzeko lanarekin jarraituko bada ere, euskararen erabilera areagotzea izango da erronka nagusia.

Plan honen bitartez lortu nahi da da herritarren hizkuntza eskubideekiko errespetuz jokatzeko, erakunde osoagoa, hobea eta gertuagoa izatea.

Helburu horrekin, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan oinarrituta, Euskara sailak ***Eibarko Udalean euskararen erabilera normalizatzeko plana. V. plangintzaldia 2013-2017*** dokumentua prestatu du bere onespenerako.

V. plangintzaldirako, Euskara Sailak erakunde autonomiadun guztientzat egingo duen proposamena Udalerako planteatu duen moduan egingo du. Erakunde autonomiadunek ere, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan xedatutakoa kontuan hartuz, euskara eta gaztelania zerbitzu hizkuntza izango direla bermatu beharko dute erakunde osoan eta progresiboki euskara lan eta harremanetarako hizkuntza normalizatua izan dadin neurriak hartu beharko dituzte. Erakunde autonomoetarako proposatuko den dokumentuak Udalekoak dituen lehentasun berberak kontuan izanik egingo da.

Zuzenbide pribatuko erakunde publikoei dagokienez, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak hizkuntza normalkuntzarako neurriak hartzeko betebeharra jasotzen du. Honela, dekretu horren laugarren xedapen gehigarrian jasotzen denaren arabera, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak behartuta daude bi hizkuntza ofizialak zerbitzu hizkuntza moduan bermatzera, eta ondorioz plan honen garapenean onartzen diren jarraibideak betetzera.

Euskara sailak Udaleko entitate publikoei aholkularitza eskiniko die, Udalak bete behar dituen hizkuntza jarraibideak erakunde horietan ere aplikatzen joan daitezela.

## 1.- AURREKARIAK

Aurreko plangintzaldiaren erdian eta amaieran egindako neurketa eta ebaluazioek honako emaitzak erakutsi dituzte:

- Euskararen barne erabilera planak ordezkari politiko gehienen oniritzia izan du.
- Plana ez dago erakundetua. Euskara planaren diseinua eta kudeaketa osoa Euskara Sailaren ardura bakarrik izan da. Honen inguruan ERALAN3 ikerketa proiektuarekin eta BIKAIN ziurtagiria lortzeko prozesua martxan jartzearekin aurrerapauso nabarmena eman dira IV. plangintzaldiaren amaieran.
- Derrigortasuna duten langile gehienek eskuratua dute euren lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna. Hizkuntza eskakizuna lortua duten langileen erdia baino gehiago euskaldun berria da, eta gehienak erosoago sentitzen dira gaztelera erabilita.
- Langile gehienak orain dela urte dexente (10-15 urte) euskaldundu ziren, baina ordutik hona oso euskara gutxi erabili dute lanean. Ondorioz euskara maila galdu egin dute kasu askotan.
- Erakundean ez dago euskaraz jarduteko ohiturarik, ez modu formalean, ez informalean.
- Ordezkaritza politikoei dagokienean euskara gaitasunean ez da egon alde nabarmenik, baina erabilerari dagokionean IV. Plangintzaldiaren amaieran sumatu da sentsibilizazio handiagoa, batez ere jendaurrean eta udaleko langileen aurrean egin beharreko agerpen orokorretan.
- Aurreko plangintzaldian langile batzuk euskararen lan mahaiko kide izan dira eta euskara gehiago erabili dute lanean, eta ondorioz euren euskara maila erreperatu egin da. Horrek adierazten du langileen lan mahaia langileen euskara erabileraren motor izan dela, bai zuzenean parte hartu dutenentzat, bai horien inguruan egon direnentzat.
- III. Plangintzalditik IV. Plangintzaldira eman den alde nabarmenetako bat da lehen herritarrei zuzendutako idatzietan elebitasuna bermatua zegoela, eta azkeneko honetan, horretaz gain, Eibarko Udalak herritarra

aurrez aurre edo telefonoz artatzen duenean lehen hitza euskaraz egiteko joera ia erabat zabaldu dela, modu proaktiboan jokatzuz

- Gero eta gehiago dira Eibarko Udalera euskaraz zuzentzen diren herritarrak, nahiz eta oraindik ere jende gehienak administrazio tramiteak gaztelaniarekin lotu. Garbi ikusten da gazteak direla horren eragile, hau da gazteek administrazioan euskara erabili dezaketela badakite, baina jende nagusiari oraindik ere kostatu egiten zaio.

## **2.- INGURUNE JURIDIKOA**

### **2.1. Arautegi orokorra**

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera sustatzeko politikak 1982ko azaroaren 24ko 10/82 Oinarrizko Legean, Euskararen Erabilpena Arauzkotzekoan, dauka bere hastapeneko erreferentzia. Herri aginteei gagozkielarik, lege horretan xedatzen da herritar guztiek dutela eskubidea herri administrazioarekin nahi duten hizkuntza ofizialean harremanak izateko. Ondorioz, herri aginteen betebeharra xedatzen du, eskubide hori muga edo trabarik gabe betetzen dela ziurtatua izan dadin.

Era berean, 1989ko uztailaren 6ko 6/89 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, euskal herri administrazioetako lanpostuen zerrendetan jaso behar diren baldintzak eta betebeharrak xedatzen ditu, lanpostuetako hizkuntza eskakizunen derrigorrezko datari dagokionez.

Aipatu ditugun lege horietan xedatutakoaren arauz, 1997ko apirilaren 15eko 86/97 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, araubidezko marko orokorra ezartzen du, euskal herri administrazioek euskararen erabileraren normalkuntzaren eremuan egin beharreko lanari buruz. Lan horretan bete behar diren gutxieneko baldintzak, plangintzaldiak eta epeak arautzeaz gain, dekretuak bost urte aldirako planak egitea aurreikusten du Euskadiko Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan, plan horietan jaso behar baitira, aldi bakoitzerako, dekretuak xedatzen dituen esparru guztietan aurreikusitako neurri guztiak.

Aurreikuspen horien artean, hizkuntza normalkuntza prozesua abiarazteko oinarrizko tresnatzat jotzen ditu aipatutako dekretuko 4. artikulua euskararen erabilera normalizatzeko planak. Zehazki, 18. artikulua dio entitate bakoitzak 17. artikuluan ezarritako normalizazio helburuak betetzeko erabiliko duen hizkuntza politika, bere nondik norakoak eta jarraibide nagusiak agertuko direla euskararen erabilera planetan.

2003ko abenduaren 22ko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuaren 6/2003 Legeak eta 2008ko uztailaren 1eko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko 123/2008 Dekretuak ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko eskubidea aitortzen die

kontsumitzaile eta erabiltzaileei. Ondorioz, erakunde publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea bermatuko dute.



### **3.- PLANGINTZALDIAREN ARDATZAK**

#### **3.1. Eragin eremua**

Plan honen eragin eremua Eibarko Udala da, honako zuzendaritza hauetan banatuta:

Eibarko Udala:

- Alkatetza
- Hirigintza eta Obrak
- Langileria eta Antolaketa
- Idazkaritza
- Informatika
- Udaltzaingoa
- Kontuhartzailletza
- Pegora
- Gizartekintza
- Garapena, Enplegua eta Berrikuntza
- Zerbitzu saila
- Euskara, Kultura eta Hezkuntza zerbitzuak

Guztira 159 langileri eragingo die planak, hain zuzen ere, atal elbidunetako 157 langileri eta atal bereziko 2 langileri. Ikus 3.4.2. puntuko taulak.

#### **3.2 Eragin epea**

Planaren eragin epea 2013ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31ra izango da.

#### **3.3. Helburu estrategikoak**

Plan honen helburu estrategikoak honako hauek dira:

- Euskara **zerbitzu hizkuntza** izango dela bermatzea Eibarko Udalaren esparru guztietan. Hau da, herritarrek Eibarko Udalarekin dituzten harremanetan, ahoz nahiz idatziz, hizkuntza ofizial bat zein bestea erabiltzeko eskubidea bermatzea.
- Euskara Eibarko Udaleko **lan hizkuntza izan dadin ahalbidetzea**, ahoz nahiz idatziz, prestakuntza egokiaz baliatuta, progresibotasunez eta etengabe.

- **EAEko** gainerako **administrazioekiko** harreman hizkuntza, bai ahoz bai idatziz, **euskara** izatea bideragarria den guztietan.
- **Erabilera plana erakundetzea**. Hau da, Eibarko udaleko atal bakoitzak, bere pertsonal tekniko eta politikoarekin, dagokion neurrian planaren garapenean parte hartzea eta bere egitea euskarari dagozkion betebeharrak.
- **Lidergo eraldatzailea sustatzea**, maila guztietako pertsonal tekniko zein politikoak bere eragin eremuan euskararen erabilera eredugarria egin dezan, inguruko jendeari euskara erabiltzeko erraztasunak emanaz.

### **3.4. Administrazio publikoen betekizunak**

86/1997ko Dekretuaren 11. artikuluan, erakundeak nahitaez bete beharreko derrigorrezko hizkuntza eskakizunen indizea ezartzen du. Indize hori Erroldako eta Biztanleria ete Etxebizitza Estatistikako datu soziolinguistikoen arabera zehazten da honako formula honen bidez:  $\text{Euskaldunak} + (\text{ia euskaldunak} / 2)$ . Hori horrela izanik, Eibarko Udalarari %61,67 bete beharra du, 2006ko erroldaren arabera.

Plangintzaldi honek helburuak euskara lan zerbitzu hizkuntza gisa bermatzea, eta progresiboki eta etengabe euskara lan hizkuntza izateko helburu estrategikoa du. Hori bideragarri egiteko Eibarko Udalak administrazio atal elebidunak ezarriak ditu jendaurreko ataletan, gizarte izaerako ataletan eta izaera orokorreko ataletan.

#### **3.4.1. Atalen definizioa**

Aipatu dekretuan ezartzen denari jarraituz, udal-administrazio honetako departamentuak honela bana daitezke:

- A.- Jendaurreko atalak: atal hauen zeregin nagusia, ahoz zein idatziz, hiritarrekiko harremanetan oinarritzen da.
- B.- Gizarte-mailako atalak: administrazioaren atal hauetako lanaren funtsa gizarte mailako harreman-sareak dira.
- C.- Atal orokorrak: hauen zeregin nagusia administrazio barrukoa da.
- D.- Atal bereziak: gehienetan eskuz egindako lanak burutzen dituzte, edo, bestela, lan teknikoak.

### 3.4.2. Eibarko Udaleko atalen sailkapena

A.- Jendaurreko izaerako atala: PEGORA

B.- Gizarte izaerako atalak: Kultura, Euskara eta Hezkuntza; Udal Euskaltegia; Gizartekintza; Etxez etxeko zerbitzuko 7 lanpostu; Udaltzaingoa; Kontsumo-bulegoa; Artxibo historikoa/Ego Ibarra eta Zerbitzu sailean, Ingurugiroa, Baserriak eta Azokak.

C.- Izaera orokorrekoak: Idazkaritza eta Zerbitzu orokorrak; Antolamendu-Pertsonal saila eta Informatika; Kontuhartzailtza-Diruzaintza; Hirigintza-Lanak; Ekonomia eta Industria.

D.- Izaera berezikoak: Zerbitzu sailean (Mantenimendu lantaldekoak, hilerrikoak, garbiketakoak), eta Gizartekintzan etxez etxeko zerbitzuko 6 lanpostu

TOKI ERAKUNDEKO LANPOSTUAK GUZTIRA		
2013an	LK	LK (%)
Jendaurreko izaera	35	16,82
Gizarte-izaera	77	37,01
Izaera Orokorra	46	22,11
Izaera Berezia	50	24,03
<b>GUZTIRA</b>	<b>208</b>	<b>100</b>

LK: lanpostu kopurua

LK(%): lanpostu kopurua ehunekotan, lanpostu guztiekiko

### ATAL ELEBIDUNETAKO LANPOSTUAK

ATALEN IZAERA	2013an elebidun diren ataletako lanpostuak					
	DD-	DD-(%)	DD+	DD+(%)	LK	LK (%)
Jendaurreko izaera	1	2,8	34	97,1	35	22,15
Gizarte-izaera		0	77	100	77	48,73
Izaera Orokorra		0	46	100	46	29,11
Izaera Berezia		0	0	0	0	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>1</b>		<b>157</b>		<b>158</b>	<b>100</b>

DD- : derrigortasun-datarik ez duten lanpostuak

DD-(%): derrigortasun-datarik gabeko lanpostuak ehunekotan

DD+: derrigortasun-data dutenak

DD+(%):derrigortasun-data duten lanpostuak ehunekotan

LK: lanpostu kopurua

LK(%): lanpostu kopurua ehunekotan, elebidun diren lanpostu guztiak kontuan hartuta

## ATAL ELEBIDUN EZ DIRENETAKO LANPOSTUAK

2013an elebidun ez diren ataletako lanpostuak					
ATALEN IZAERA	DD-	DD- (%)	DD+	DD+ (%)	LK
Jendaurreko izaera					
Gizarte-izaera					
Izaera Orokorra					
Izaera Berezia	48	96	2	4	50

DD- : derrigortasun-datarik ez duten lanpostuak

DD-(%): derrigortasun-datarik gabeko lanpostuak ehunekotan

DD+: derrigortasun-data dutenak

DD+(%):derrigortasun-data duten lanpostuak ehunekotan

LK: lanpostu kopurua

LK(%): lanpostu kopurua ehunekotan, lanpostu elebidun ez diren lanpostu guztiak kontuan hartuta

### **3.5. Metodologia**

Plangintzaldi honetarako metodologia honako hau izango da:

- 4. plangintzaldiaren ebaluaketaren emaitzak eta esperientzia hartuko ditu oinarri.
- Gidaritzat ditu ESEP (Euskararen Sustapenerako Ekintza Plana) Administrazioari dagokion atala eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailak V. plangintzaldirako egindako txostena, *EAEko Herri Administrazio eta Erakundeetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planetarako irizpide orokorrak*, izenekoa.
- Gidaritzat ditu ESEP (Euskararen Sustapenerako Ekintza Plana) Administrazioari dagokion atala eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailak V. plangintzaldirako egindako txostena, *EAEko Herri Administrazio eta Erakundeetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planetarako irizpide orokorrak*, izenekoa.
- Eibarko udalean garatu den ERALAN 3 ikerketa-interbentzioan landutako “*Lidergo politikoa Eibarko euskara planean. Euskara planaren kudeaketatik elkarrekintzarako bidea*” udaleko langile eta ordezkari politikoekin landuko da
- Zuzendaritza bakoitzak herritarrekin dituen harremanetan euskara erabiltzeko aukera bere osotasunean bermatu beharko du eta

harremanetarako hizkuntza eta lan hizkuntza euskara izan dadin bideak jorratuko ditu. Horretarako, Udaleko zuzendaritza guztiek urteko ekintza plana egingo dute Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan, eta ENBA batzordearen oniritzia beharko dute.

- Hizkuntzen kudeaketa egokia ziurtatzeko Bikain ziurtagiria lortzeko bidea egingo da.

### **3.5.1. Antolakuntza egiturak**

#### **3.5.1.1. ENBA (Euskararen Normalkuntzarako Batzorde Aholkularia)**

Batzordea honako hauek osatuko dute:

- Alkateak edo honek bere ordez izendatzen duenak.
- Udalean ordezkaritza duen alderdi bakoitzeko zinegotzi batek
- Langileen batzordeko ordezkaritza batek
- Udaletxeko pertsonal buruak
- Euskara teknikariak
- Hizkuntza normalizatzailleak
- Udal Euskaltegiko zuzendariak

Honako egitekoak izango ditu:

- Planaren jarraipen txostenak aztertzea, baloratzea eta egokitzapen neurriak planteatzea.
- Euskararen lan-mahaia egindako proposamenak aztertzea eta Gobernu Batzarrari bidaltzea onespena jasotzeko.

#### **3.5.1.2. Euskararen lan-mahaia**

Lan-mahaia honako hauek osatuko dute:

- Udaletxeko sail edo zuzendaritza bakoitzeko ordezkaritza bat
- Antolaketa teknikaria
- Euskara teknikaria
- Hizkuntza normalizatzaillea

Honako egitekoak izango ditu:

- Euskara planaren garapenaren jarraipena egitea sailka.
- Sailka edo udaletxe osora begira hartu beharreko neurriak proposatzea.
- Lehentasunak zehaztea.
- Aurrera eramango diren normalizazio ekintzak adostea, ENBARI proposatzeko.

### **3.5.2. Planaren jarraipena eta ebaluaketa**

V. plangintzaldiaren jarraipena eta ebaluaketa egiteko Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren IRATI programa erabiliko da.

V. plangintzaldiaren erdi aldean tarteko ebaluazioa egingo da, eta 2017an, amaierako ebaluazioa. Euskara sailaren ardura izango da lan-mahaian sailka egindako jarraipen datuak kontuan izanik txosten orokorra egitea.

## **4.- BALIABIDEAK**

Eibarko udal barneko euskararen Erabilera Planak aurrera egin dezan, besteak beste honako hauek izango dira baliabide nagusiak:

### **4.1. Giza baliabideak**

-Erabilera plana aurrera eramateko dokumentu honen 3.5.1. atalean aurreikusten diren antolakuntza egituretan parte hartuko duten langileak.

-Euskara-Kultura-Hezkuntza saileko euskara teknikaria eta hizkuntza normalizatzailerak. Berauen egitekoa izango da egitasmoaren diseinua proposatzea, hizkuntzari lotutako aholkularitza eta laguntza ematea (trebaketa, zuzenketak, hizkuntza irizpideen gaineko informazioa ematea...) eta ebaluaketa egiteko metodologia proposatzea.

-Udal Euskaltegiko langileak. Berauen egitekoa izango da langile edo ordezkari politikoentzako euskara saio bereziak ematea, euskara saileko teknikariak eta normalizatzailerak erantzun ezin dutenean zuzenketak egitea.

### **4.2. Normalizazio ekintzak**

Normalizazio ekintza zehatzak urtekako kudeaketa planean zehaztuko dira

Honako hauek dira Euskara sailak V. Plangintzaldian aurrera eramatea aurreikusten dituen normalizazio ekintza nagusiak:

#### **4.2.1. Hizkuntza prestakuntzarako normalizazio ekintzak:**

- Hizkuntza prestakuntza eskaintzea 2013ko irailaren 6ko Gobernu Batzarrean onartutakoaren arabera.
- Derrigortasun data izan eta dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez duten langileen egoeraren jarraipena egitea eta horien euskalduntzea bideratzeko proposamenak egitea.
- Ordezkari politikoak sentsibilizatzeko ekintzak burutzea euskara ikas dezaten.

- Erabilerara zuzendutako trebakuntza saioak eta tailerrak eskaintzea.
- Laneko prestakuntza etengabearen barruan egiten diren prestakuntza ikastaroak euskaraz egitea.
- Langileei hizkuntza aholkularitza eskaini eta idatzien zuzenketak egitea.

## **4.2.2. Erabilerara zuzendutako normalizazio ekintzak**

### 4.2.2.1. Euskara zerbitzu hizkuntza

- Langileentzako sentsibilizazio eta motibazio tailerrak: lehen hitza euskaraz...
- Ordezkeri politikoentzako sentsibilizazio ekintzak burutzea udal langileen eta herritarren aurrean euskara planean jasotakoarekin bat datorren hizkuntza jarrera izan dezaten.
- Herritarrentzako “Eibarko udalarekin, nahi baduzu, euskaraz” komunikazio kanpaina.
- EAEko gainerako administrazioekiko harremanetan euskararen erabilera bideratzeko informazio kanpaina.
- Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko euskara ere zerbitzu hizkuntza izan dadin lagunduko duten irizpideak zehaztea, aplikatzea eta ebaluatzea.

### 4.2.2.2. Euskara lan eta harreman hizkuntza

- Ordezkeri politikoentzako sentsibilizazio ekintzak burutzea udal langileen eta herritarren aurrean euskara planean jasotakoarekin bat datorren hizkuntza jarrera izan dezaten.
- Langileentzako sentsibilizazio eta motibazio tailerrak.
- Trebakuntza saioak.
- Euskarazko bertsioa duten informatika tresnak langileen eskura jartzea.
- EAEko gainerako administrazioekin euskarazko harreman sarea sortzeko kanpaina.

- Baliabide informatikoeek eskaintzen dituzten aukeren berri ematea langileei (zuzentzaile ortografikoak, hiztegi terminologikoak, dokumentu bankuak, itzulpenak...)
- Estandarizatzeko moduko testuen inbentarioa egin eta euskararen erabilera errazten duten testu normalizatuak sortzen laguntzea.
- Euskara harreman hizkuntza izan eta euskaraz lan egiteko prestutasuna duten langileen arteko sarea osatu eta indartzea.
- Euskara lan hizkuntza ere izan dadin erabilera irizpideak zehaztea, aplikatzea eta ebaluatzea, Eusko Jaurlaritzak zehaztutako irizpideei jarraituz.

#### **4.2.3. Euskara plana erakundetzera zuzendutako normalizazio ekintzak:**

- Bikain ziurtagiria lortzeko prozesuan parte hartzea
- Langileentzako eta ordezkari politikoentzako sentsibilizazio tailerrak antolatzea.
- Lan-mahaia osatzea.
- Komunikazio plana diseinatu eta burutzea.

#### **4.2.4. Lidergo eraldatzailea sustatzera zuzendutako normalizazio ekintzak**

- ERALAN 3 ikerketa-proiektua ordezkari politikoekin, enpresa batzordekoekin eta langileekin lantzea.



## **5.- GAUR EGUNEKO HIZKUNTZA EGOERA**

### **5.1. Ordezkarri politikoen ezagutza maila**

20 zinegotzik eta alkateak osatzen dute Eibarko Udala. Horietatik 10 ordezkarik ondo hitz egin, ulertu eta idazten dute. 5ek ez dakite euskaraz eta 6k zailtasunak izan arren ulertzeko gai dira.

### **5.2. Udal langileen ezagutza maila**

Eibarko Udaleko lanpostuak: 208  
Atal elebidunetan sartzen diren lanpostuak: 158  
Dagokien hizkuntza-eskakizuna lortu dutenak: 138  
Maila baten faltan daudenak: 10  
Maila biren faltan daudenak: 4  
1 HE ere ez dutenak: 3  
Salbuetsitakoak: 3

1 HE egiaztatu behar dutenak: 5 (etxez etxeko zerbitzukoak); gainerakoak, izaera berezikoak dira, planetik kanpo  
1 HE egiaztatu dutenak: 11  
2 HE egiaztatu behar dutenak: 90  
2 HE egiaztatu dutenak: 68  
3 HE egiaztatu behar dutenak: 41  
3 HE egiaztatu dutenak: 55  
4 HE egiaztatu behar dutenak: 22  
4 HE egiaztatu dutenak: 18

### **5.3. Ondorioak**

Ordezkarri politikoei dagokienean esan daiteke kasurik gehienetan eman daitezkeela urratsak udaleko lan hizkuntza euskara ere izan dadin progresiboki, gehienek bide hori jorratzeko ulermen maila nahikoa baitute.

Langileei dagokienean, gehienek dute gutxieneko maila bat lortua, beraz, ezagutza aldetik, ez legoke eragozpen handirik hainbat lan-jardun euskaraz ere burutzeko.

Sailtako buruek dagokien hizkuntza-eskakizuna edo bat gutxiago egiaztatua dute. 2. HE denek dute.

Zenbaitzuek euskaraz lan egiteko gaitasuna higatu samartuta eduki dezakete erabili ezaren erruz. Horiekin behar-beharrezkoa izango da trebatze-lana.

Salbuetsitako hirurek ez dakite euskaraz. Horiek eta 1 HE ere ez dutenak dira arazotsuen erabilera-planeko zenbait helburu erdiesteko.